

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

VITORIA-GASTEIZKO UDALA

ALKATETZAREN ETA ERAKUNDE HARREMANEN SAILA

Vitoria-Gasteizko Udaleko Tokiko Gobernu Batzarrak 2020ko martxoaren 27an hartutako erabakiaren laburpena: Euskararen Erabilera Planaren dirulaguntza, haur eta gazte literaturaren alorrean euskarara egindako itzulpenik hoberenak, 2019ko legezko gordailua dutenak, saritzeko Vitoria-Gasteiz sarietarako deialdia

BDNS(Identif.): 508588

Diru-laguntzak emateari buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 17.3.b eta 20.8 a artikuluetan aurreikusitakoaren arabera, deialdiaren laburpena argitara ematen da; horren testu osoa Espainiako Diru-laguntzen datu-basean (<http://www.pap.minhap.gob.es/bdnstrans/index>) kontsulta daiteke.

Lehena. Onuradunak

Haur eta gazte literaturaren alorreko lanen itzultzaileak, edozein hizkuntzatatik euskarara egindako itzulpen lanekin (2019 urteko legezko gordailua dutenak). 2019ko deialdi honetara ezingo dira sail bereko lehiaketara aurkeztu 2018 edo 2019an sail horretan sarituak izan ziren itzultzaileak. Ez da onartuko enpresek egindako itzulpen-lanik.

Bigarrena. Helburua

2019 urteko legezko gordailua izan eta haur eta gazte literaturaren alorrean euskaraz argitaratutako itzulpenik hoberenak saritzeko emango diren Vitoria-Gasteiz Sariak. Euskarara egindako itzulpenik hobereenen egileen lana saritu nahi da, literatura generoa edozein izanda ere.

Hirugarrena. Oinarri arautzaileak

Vitoria-Gasteizko Udalaren Tokiko Gobernu Batzarrak 2020ko martxoaren 27an egindako ohiko bilkuran onartu ditu, eta ALHAOn argitaratuko dira.

Laugarrena. Zenbatekoa

Deialdiari 18.000 euroko aurrekontua egokitu zaio.

Bosgarrena. Eskabideak aurkezteko epea

60 egun natural, laburpen hau ALHAOn argitaratzen den hurrengo egunetik kontatuta.

Vitoria-Gasteiz, 2020ko martxoaren 27a

Alkatetzaren eta Erakunde Harremanen Saileko zuzendaria
ESTÍBALIZ PEREDA SAGREDO